



2021/2022 denboraldia

32. ZIRKULARRA

EPAILE FEDERATURIK EZ ALEBINEN MAILAN

Futbol-Arbitroen Biltzar Teknikoak, gaur bertan urriak 26, egindako jakinarazpenean azaldu zuenez, arbitrajeko hastapen-ikastaroak amaitu arte **ALEBINEN mailan (AURRETIKO FASEA ETA HOBEKUNTZA)** ez da epaile federaturik jarriko; beraz, jakinarazten dugu **etxean jokatzen duen klubak izendatu beharko duela kategoria horretako epaile-lanak egingo dituen pertsona.**

Lan hori errazteko, **zirkular honekin atxikitzen dugu bete gabeko akta.** Federazioaren web orrian ere aurki daiteke Dokumentuak/aktak betetzeko atalaren barruan.

Era berean, jakinarazten dizuegu kategoria horren kontrol teknikoa behar bezala egiteko **ezinbestekoa dela partidaren akta Federazioa bidaltzea klubaren barneko posta bidez edo futbol@fgf-gff.org helbide elektronikora bidalita, betiere asteleheneko 09:00ak baino lehen.**

Jakinarazpen honek lehiaketa hasi bezperan kalte larria eragiten duela jakinda, barkamena eskatzen dizuegu sortutako eragozpenengatik. Federazioa lanean ari da arazoa ahalik eta azkarren konpontzeko; 2-3 astetan epaile berriekin eragozpen honi konponbidea ematea espero da.

Donostia, 2021eko urria

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General

